



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: GITARRA

Nori zuzenduak?

Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **gitarra** ikasleei

2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetarako sarrera probak egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek onarpen eskubidea gordetzen du jasotzen diren izen-emate kopuruaren arabera.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **[izena emateko orria](#)** betez. Epea **2021eko apirilaren 11n** amaituko da.

Jardunaldien helburuak

Gitarran Interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei orientazioa eta informazioa luzatzea: sarrera proben egitura, ikasketetan sartzeko eskatzen den maila eta erreperitorio egokia.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Apirilak 16, ostirala, 16.30etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, Sarrera Proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

SOCÍAS, Marco

Apirilak 17, larunbata, 10:00etan

- Graduko ikasketetan sartzeko eskatzen den maila eta erreperitorioaren inguruko aholkuak.
- Proba instrumentalaren inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleekin saio praktikoa
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketaren iraupena: ordu t'erdi inguru

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Gitarra jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: **mmoll@musikene.eus**